

2008: GERONTOLOGIA-ZENTRO BERRIAREN URTEA

·Zuek bai jakin!: Maite Janeiro ·Erreportajea: Urola Garaiko merkatariak ere euskaraz

·Izerdi patsetan: De Miguel aita-semeak eta saskibaloia ·Boteprontoan: Macrea Clarke

Herri Aldizkaria

Otamotz

2007ko
abendua
132. alea





*Badoa zaharra,
badator berria
izan dadila,
zorionaren iturria.*



URRETXU - ZUMARRAGA IKASTOLA



Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldia **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldia **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
2008: Gerontologia-zentro berriaren urtea
- 10 Erreportajea**
Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Gabonetako apaingarri gehiegi ala gutxiegi jartzen al dira?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Argazki zaharra**
- 18 Klik eta klik**
Jesus Udabe 'Aresti'
- 21 Zuek bai jakin!**
Maite Janeiro
- 25 Gure gomendioak**
- 26 Erreportajea**
Urola Garaiko merkatariak ere euskaraz
- 29 Izerdi patsetan**
De Miguel aita- semeak eta saskibaloia
- 32 Gure aholkuak**
- 33 Literatura**
- 34 Botereprontoan**
Macrea Clarke



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

2008: Geriatriko berriaren urtea

Aldundia eta Gerozerlan enpresa geriatriko berria egiten ari dira ospitale ondoan. Lursaila Zumarragako Udalak utzi du. Argixao izena izango du eta uztailean irekitzea espero da. Egungo zaharren egoitzako langileek ez dakite oraindik bertan lan egingo duten eta batzuek mobilizazioak hasi dituzte. Eurekin, Anton Arbulu alkatearekin eta Gerozerlaneko Jose Luis Madrazorekin hitz egin dugu gai hauetaz guztiez.

Argixao gerontologia-zentroa, bertatik.
Obraren argazki guztiak Gotzon Aranburuk atera ditu.



Gerontologia-zentro berriak 110 lagunentzako tokia izango du eta 25 pertsonentzako eguneko zentroa ere bai. Egitasmoaren aurrekontua 6,7 milioi eurokoa da, BEZ kanpo. %20 gutxi gorabehera Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko du eta gainontzekoa kudeaketaz arduratuko den Gerozerlan enpresak. Hau Matia Fundazioak eta Moyuak osatzen dute. Eraikina 8.594 metro koadroko lursail batean egiten ari dira, ospitale ondoan. Lursail hori Udalak doan utzi dio Foru Aldundiari.

Zentro berria Goierri mailakoa da eta mendekotasunak dituzten adinekoei zuzendua dago. Iazko datuen arabera, Goierriin 65 urtetik gorako 12.000 lagun baino gehiago bizi dira: biztanleriaren %19. Aldundiak Lazkaon ere gerontologia-zentro berria bultzatu du eta ondorioz Goierriko eskaintza batz bestekotik gorakoa izatera pasatuko da.

Gipuzkoa mailako erakundeak, egitasmoa bultzatzeaz eta diruz laguntzeaz gain, urtero dirulaguntza emango du. Diru horri esker, zaharren egoitzako 64 plaza eta eguneko zentroko guztiak kontzertatuak izango dira.

Eraikuntza, ekipamendua, esplotazioa eta mantenua enpresa baten esku uztea erabaki zen eta horretarako lehia-keta egin zen. Gerozerlan da lan haue-taz guztietaz arduratzen ari dena. 28 hilabete eman zitzaizkion proiektua aurkezteko eta eraikina egiteko eta dato-rrin urteko uztailean irekitzea espero da. Aldundiak 40 urteko kontratua sinatu du Gerozerlan enpresarekin. Ondoren, eraikina, bertako ekipamen-dua eta zerbitzua bere eskuetara pasa-tuko dira.

Gerontologia-zentroak 110 lagunentza-ko tokia izango du. Urteko egun guztie-tan, eguneko 24 orduetan eskainiko zaie zerbitzua. Erabiltzaile bakoitzak bere gela izango du, gutxienez 20 metro koadrokoa eta komunarekin. Tartean bi psikogeriatria modulu izango dira, bakoitza 15 tokikoa. Horiek ezaugarri bereziak dituzte arkitekturari eta bertan eskaintzen den atentzioari dagokienez. Izan ere, burua galdu eta portaera ara-zoak dituztenei zuzenduak daude.

Eguneko zentroari dagokionez, asteko

110 lagunentzako tokia izango du: 64 plaza publikoak izango dira eta gainontzekoak pribatuak

zazpi egunetan irekiko da. Gerozerlan arduratuko da erabiltzaileak eraikin berrira eramateaz eta etxera itzultzeaz.

Eraikinak sotoa eta lau solairu izango ditu. Zaharren egoitzak 6.455 metro koadro eta lurrazpiko aparkalekua izango ditu. Sotoan sukalde nagusia, arropa garbitzeko eta josteko gela eta langile-entzako aldagelak izango dira.

Beheko solairuan sarrera, ile-apainde-gia, podologia zerbitzua, bi erabilera aniztun gela, jolasgela, telebista gela eta kafetegia izango dira, besteak beste. Hauek guztiak lorategira begira izango dira. Horretaz gain, administra-zioari eta zuzendaritzari dagozkion

gelak eta mediku kontsultak bertan izango dira.

Logela arruntak lehen eta bigarren solairuetan izango dira. Solairu haueta-ko bakoitzak 1.268 metro koadro eta 20 lagunentzako bi modulu izango ditu. Hala, erabiltzaileak euren beharren ara-bera sailkatu ahal izango dira. Solairu guztietan jangelak eta egongelak izango dira. Hirugarren solairuan bi psikogeria-tria moduluak izango dira, bakoitza 15 lagunentzat.

Eguneko zentroari dagokionez, beheko solairuan izango da eta 399 metro koadro, 25 lagunentzako tokia, lorategi pro-pioa eta sarrera propioa izango ditu. Horretaz gain, bi jarduera gela, bi egon-gela, bi jangela, arropazaindegia, bainu geriatrikoa eta komuna izango ditu, bes-teak beste.

Zumarragako goialdea zaharren zainke-tan Gipuzkoa mailako erreferente bilaka-tuko da aurki, baina ez bakarrik gerontolo-gia-zentroari eta eguneko zentroari esker. Izan ere, Zumarragako Udalak adineko-entzat apartamentu babestuak eraiki behar ditu bertan. Anton Arbulu alkateak adierazi duenez, geriatriko berriko lanak bukatu bezain pronto hasiko dira aparta-mentuak eraikitzen. Zumarraga Lantzen elkarte publikoak ia hiru milioi euro bidera-tuko ditu aurten horretarako. Udalak apar-tamentuak legealdi honetan bertan ireki-tzea espero du.

Baina, zer gertatuko da Faustino Orbegozo eraikinarekin? Izen bereko fundazioarena da eta Zumarragako Udala Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarri da bertan gizarte ongizatearekin lotutako beste zerbitzu-ren bat eskaintzeko.



Faustino Orbegozo geriatrikoan lan egiten duten ELA sindikatuko kideetako batzuk.

ELAren delegatuak Faustino Orbegozo geriatrikoan: “Oraingoz, kale gorrian gaude”

Datorren urtean irekiko den zaharren egoitza berriak abantaila ugari ekarriko dizkie erabiltzaileei eta euren familiei, baina buruhaustek ere ekarri ditu. Izan ere, Faustino Orbegozo geriatriko zaharreko langileek ez dakite oraindik zer gertatuko den eurekin. ELA sindikatuko afiliatuek hainbat mobilizazio egin dituzte: eraikin berrian orain arteko baldintza eta soldata bereberekin lan egitea eskatzen dute.

Diotenez, oraindik ez dakite geriatriko berrian tokirik izango duten ere. Maribel Gonzalez, Ainitze Sudupe eta Mari Carmen Estevez ELAko delegatuekin hitz egiten izan gara.

Geriatrikoaren jabea Faustino Orbegozo Fundazioa da, baina ez du funtzionamenduan parte hartzen. Hau Udaleko zinegotziek, alderdi politikoetako ordezkariak, elkarteetako kideak eta

Mertzedariatarrek osatzen duten batzorde gidariaren esku dago. Zaharren egoitzan 32 lagunek lan egiten dute: sukaldariak, garbitzaileak eta geriatria lanak egiten dituztenak daude. Antioko bidean dagoen eraikina duela ia 30 urte ireki zen eta langileetako batzuek ia hasieratik lan egiten dute bertan. Udal langileak dira. Horrek Udalhitz hitzarmena aplikatzen zaiela esan nahi du.

Aipatu bezala, oraindik ez dakite zer gertatuko den eurekin. Dena den, geriatriko berrian lanean hasiko balira, Udalarentzat lan egitetik Gerozerlan enpresarentzat aritzera pasatuko liratekeela diote. “Oraingoz, kale gorrian gaude. Zaharren egoitza berrira joango bagina, berriz, erresidentzien hitzarmenak markatzen dituen baldintzekin lan egitera pasatuko ginateke. Hilean 400 euro gutxiago kobratuko genituzke eta gainera urtean ordu gehiago lan egin beharko genuke...”.

Beste galera batzuk ere izango lituzketela aipatzen dute. “Orain egunero 20 minutuko atsedena dugu eta erresidentzien hitzarmenean, atsedena hartuz gero, denbora hori berreskuratu egin behar da. Bestalde, orain bajen %100 kobratzen dugu eta hemendik aurrera %75 kobratuko genuke, festetako eta gaueko lanaren plusetan ere galduko genuke... Lotsagarria da”, diote.

Kezkagarriena, ordea, oraindik euren etorkizunaren berri ez izatea da. “Lehenik eta behin lanpostua mantentzea eskatzen dugu eta gero lan baldintzak errespetatzea. Udalak abokatua kontratatu du gai hau eramateko eta honek geriatrikoaz arduratuko den Gerozerlan enpresak langileen afera urruti ikusten duela esan digu. Langile bila hasi direla jakin dugu, ordea”. Arazoa konpontzeko nahikoa denbora izan dela uste dute. “Bilera eta mobilizazio askoren ondoren, oraindik ez dugu ezer. Orain arte Udalarekin bakarrik bildu gara, kontu hau bere ardura baita: izan ere Udal langileak gara. Udalak gure alde egin beharko lukeela uste dugu, baina gai honetan zerikusirik ez dutela esan digu. Diputazioaren kontua dela. Gauzak ahalik eta ondoen irten daitezen saiatuko direla

ere esan digu. Borondate ona badu, baina ez du oraindik inolako konpromisorik hartu, eta urtarrilean bi urte beteko dira mobilizazioekin hasi ginela. Abokatua kontratatu du gai hau Aldundiarekin eta Gerozerlanekin lantzeko, baina baita bere burua defendatzeko ere. Izan ere, ez du afera honek egungo egoitzaren funtzionamenduan eraginik izatea nahi”.

Udalarekin haserre daude. “Ez du gure gaineko ardurarik hartu nahi. Gu bere beste edozein lanpostutan hartzea proposatu genion, baina guretzat tokirik ez dagoela esan zigun. Geriatriko berrian tokia ziurtatzea ere ez dugu lortu oraindik”, diote.

Hau guztia dela eta, hainbat mobilizazio antolatuta dituzte. “Urretxuko jaietan karro-

“Orain arte Udalarekin bakarrik bildu gara, kontu hau bere ardura baita: izan ere, Udal langileak gara”

za atera genuen gure egoera salatzeko eta hurrengo astean Udal arduradunak Aldundikoekin elkartu ziren. Diputazioko arduradunak arazo hauek ohikoak direla esan zuen”.

Izan ere, beste herri batzuetan antzerka ibili dira. “Entzutetsuena Durangokoa izan zen. Han ere gatazka handia izan zen. Orain arte Udalak gure beharra izan du zaharrak zaintzeko, baina hemendik aurrera ez du izango”.

Hau guztia salatzeko, mobilizazioak areagotzea erabaki dute. “Santa Lutzi egunean kontzentrazioa egin genuen. Bestalde, zaharren familiei bizi dugun egoeraren berri eman nahi diegu. Urtariletik aurrera, berriz, geldialdiak egiteko asmoa dugu”, aurreratu dute.

Aste honetan bertan langile guztiek bilera dute eta bertan erabakiko dute zer bide jarraitu. “Lankide guztiak mobilizazioetara gonbidatzen ditugu, baina batzuk paso egiten dute. Ez dute ezer jakin nahi eta kale gorria joateko edo eraikin berrira lan baldintza berriekin pasatzeko prest dardela dirudi. Gainontzeko sindikatuek ez diote ezer, erresidentzietako hitzarmena sinatu baitzuten. Dena den, argi utzi nahi dugu langile guztion eskubideon alde ari garela”, amaitu dute.

Faustino Orbegozo geriatrikoko langileekin gertatu daitekeena jakiteko Anton Arbulu Zumarragako alkatearekin harremanetan jarri gara. Arbuluk ere Geriatrikoko batzordeak gai honetaz arduratuko den abokatua kontratatu duela esan du. Langileen aldarrikapenei buruz galdetu diogunean, batzuk lortzea “posible” izango dela eta besteak ezingo direla lortu esan du. “Geriatriko berrira joatea lortu daitekeela uste dut, hori da gure asmoa, baina euren egungo lan baldintzak mantentzea ez dut bideragarri ikusten. Lazkaon ireki berri duten zentroko langileek hitzarmen bat dute eta hemengoek hitzarmen bera izan beharko dute”, aipatu du. “Dena den, Aldundiak ez du langileen gaineko inongo erantzukizunik. Kontratatu dugun abokatuak gaia geriatriko berriko kudeatzailearekin aztertu beharko du eta ea denentzat egokia den akordioa lortzen duten”, gaineratu du.

Jose Luis Madrazo: “Argixao gerontologia-zentroa Gipuzkoako ederrena izango da; kokapena, eraikina eta zerbitzuarengatik”

Gerontologia-zentro berriaren funtzionamenduaren berri izateko, Gerozerlan enpresako proiektu koordinatzailea den Jose Luis Madrazorekin hitz egin dugu. Madrazok Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako sailean lan egin zuen eta primeran ezagutzen du, beraz, geriatría alorra.

Zer egin behar da zentro berriko plaza publikoetako bat lortzeko?

Gipuzkoar guztiek dute herrialdeko plaza publikoetako bat lortzeko eskubidea, berdin du dirurik duten ala ez. Mendekotasun maila begiratzen da. Behar handiena dutenak dira toki publikoetako bat lortzen lehenak. Zenbat eta diru gehiago izan, orduan eta gehiago ordaintzen da. Batere ez duenak, ez du ezer ordaintzen. Berari eskaintzen zaion zerbitzua Aldundiak ordaintzen du. Eskaera zerrenda publikoa da.

Zein da plaza pribatuak banatzeko erabiltzen den irizpidea?

Horietan ez zaio mendekotasunari begiratzen. Tokiren bat libre badago eta berak eta bere familiak gurera etorri nahi badute, ez dago arazorik.

Zer egin behar dute zentro berrian tokia nahi dutenak?

Gainontzekoetara joateko egiten den berbera: prozesua udaletako Gizarte Zerbitzuetan hasten da. Bertako langileek eskaera luzatu duenaren mendekotasun maila neurtuko dute eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren itxaron zerrendara pasatuko dira. Foru Aldundiak esango dio

Gerozerlan plaza kontzertatuak norentzat diren. Plaza pribatuetako bat eskatzeko, berriz, zuzenean Argixao gerontologia-zentrorra jo beharko da.

Zer bereizgarri izango ditu Argixao gerontologia-zentroak?

Nire ustez, Gipuzkoako ederrena izango da. Toki zoragarrian egongo da, ospitaletik gertu, eta eraikina bikaina izango da. Gainera, zerbitzua kalitate handikoa izango da, berme osokoa. Gerozerlan ez da enpresen behin-behineko batasuna, asistentzia funtsezkoa da eta Matia Fundazioak erabateko bermea eskaintzen du. Matiaren lan ona Gipuzkoatik kanpo ere ezaguna da eta bere jakintza esportatzen ari da. Kontuan izan behar da ia 100 urte daramatzala lanean alor honetan. Gerozerlan enpresa Urretxu eta Zumarragaren eskualdean ondo txertatzea nahi dugu. Horretarako Nagusilan elkartearekin eta udaletako Gizarte Zerbitzuekin lan egingo dugu, besteak beste.

Zerbitzua primerakoa izango dela esan duzu.

Hau ez da ospitalea. Gurera datozenak bizitzera datoz eta Argixao bere etxea izatea nahi dugu. Kasu gehienetan, hau izango da euren azken trasladoo. Hori dela eta, euren etxean bezala sentitzea nahi dugu. Horretarako, langileak ondo trebatuko ditugu. Zaharregandik oso gertu egotea nahi dugu, zainketaz gain maitasuna ematea. Bestalde, gurera datozenek euren erabakiak hartzea nahi




Jose Luis Madrazo.
Argazkia: Goierriko Hitza.

dugu: etxe horretan nola bizi nahi duten esatea.

Zenbat langile izango dira?

70 bat. Gizarte-langileak, psikologoak, medikuak, erizainak... izango dira. Guztion artean egoitzan harmonia lortzen saiatuko gara eta bizikidetzaz ahalik eta gehien zainduko dugu. Aipatutako alor honetaz Gerozerlan arduratuko da. Guk kontratatuko ditugu langileak.



Gerontologia-zentro berria, ospitaletik.

Gainontzeko alorretarako beste enpresa batzuk kontratatuko ditugu.

Zer gertatuko da Faustino Orbegozo gerontologia-zentroan lan egiten dutenekin?

Kontu hori Udalaren esku dago. Guk ez dugu inongo subrogazio konpromisorik hartu. Aipatu bezala, Gerozerlan zuzeneko zainketa lanetaz arduratuko da eta alor horretan lan egin nahi dutenentzat formazio prozesu garrantzitsua antolatu dugu. Faustino Orbegozon zainketa lanak egiten dituztenek formazio prozesu horretan parte hartu dezakete. Langile guztiek lan baldintza berberak izango dituzte.

Faustino Orbegozo geriatrico langileei ez zaie, beraz, Argixaon lanpostua ziurtatzen.

Bertan lan egin nahi duten guztiek formazio eta aukeraketa prozesua pasatu beharko dute. Aukeraketa adituek egin-

“Eskualdean ondo txertatu nahi dugu eta horretarako Nagusilan eta Gizarte Zerbitzuekin lan egingo dugu”

go dute eta esperientzia kontuan izango da, noski. Zergatik hau guztia? Argixaon lan egin nahi dutenek Matia Fundazioaren lan egiteko modua barneratzea nahi dugulako.


Pertsona asko gera daitezke kalean...

Sentsibiltate handiarekin jokatuko dugu. Gainera, esperientzia beti da garrantzitsua.

Faustino Orbegozon zainketaz arduratzen direnez formazio prozesua pasatu behar dutela aipatu al zaie?

Kontu hori Faustino Orbegozo eta Udalaren artekoa da. Udalak esan beharko digu zeintzuk diren gurean lan egiteko prest daudenak.

Otamotz.com atariko eduki nagusiak azken hilabetean



ALBISTEAK

1. Ikusmina sortu du igandean izango den gizon-probak (11-26).
2. Urretxu garaile gizon-proban (12-02).
3. Badatoz Santa Lutzia (12-12).
4. Negu partean ere sasoian bertso eskolakoak (12-09).
5. 5 minutuko isilaldia egin dute ETAre azken hilketagaik (12-06).
6. Pinturak kartzelatik (11-15).
7. Lagun bat hil da kamioi eta autoen arteko istripuan (12-04).
8. Gazteen etxebizitza beharrak aztertuko dira (11-17).
9. Erosketak euskaraz egin ditzakegu (12-04).
10. Antiguarekin taldeak azken ekimenen berri eman du (12-06).

BIDEOAK

1. Gizon-proba.
2. Hot Dogs-en kontzertua Labeagan.
3. Karting sariketa.
4. Anjel Rekalderen hitzaldia.
5. Emakume harrijasotzaileak.
6. Agiñako San Martinak.

AUDIOAK

1. Berriotxoan anaiak Euskadi Irratian.

ALDIZKARIA

1. Aitor Esnal: futbolari gazteen ispilua (Izzerdi patsetan/131. alea).
2. Olentzeroren ipuina (Iritziz iritzi/62. alea).
3. Jesus Iturbe (Zuek bai jakin!/131. alea).

INKESTAK

Nork irabaziko du gizon-proba? Urretxuk %51-Zumarragak %49.
AHT-ari nahikoa informazio eman al dute? Bai %13-Ez %87.

KOMENTARIOAK

Ikusmina sortu du igandean izango den gizon-probak (11-26).
- Ni ere zumarragarra izanda, gustura ikusiko nuke gure taldea irabazten! baina pena da ez ikustea, zeren ez nago 10 euroko sarrera ordaintzearen alde! benetan lotsagarria iruditzen zait, herriaren kontura plaza, estalkia eta dena delakoak lortu ondoren ikusleei sarrera ordainaraztea. Modu honetan ez dira herri kirolak indartzen!! ENERITZ
- Nik, ordea, ez dut zalantzarik! Ikusi al duzue ze talde gaztea? Dударik gabe mereziko du 10 euroko sarrera ordaintzeak, pike sano horren partaide izan nahi dut. Igandean ikusiko dugu elkar...EPLAZAOLA

Lagun bat hil da kamioi eta autoen arteko istripuan (12-04)
- Gure errepideetako puntu beltz bat da toki hau. Nahikoa ondo seinalizatuta dagoela pentsa liteke, errua gidariena dela, azkarregi juteagatik, baina bistan da ezaugarri jakin batzuk ematen direla, bereziak, hainbeste istripu egoteko. Andoainen, Leitzarango autobidearen irteeran, erradar bat ipini behar izan zen azkenean. Erradarra edo besteren bat, baina hemen ere zerbait behar dela, nire ustetan behintzat, argi dago. Errepide honen ardura diputazioarena den arren, gure ordezkari politikoek ere egin beharko lituzkete gestioak arazo hau lehenbailehen konpontzeko. PATXI IRAETA

- Kontua da Ezkio aldetik datozen asko eta asko ziztu bizian etortzen direla bihurtune alu hori parean aurkitzen dutenean eta harantz joaten direnak ere abiadura handiagotzen hasten direla puntu horretan, izan ere, autobian sartzera doaz. Egia da seinaleek adierazten dutela abiadura mantsotzeko baina agian lurrean oztopoak jarri beharko lirateke, herri barruan jartzen diren bandak edo horrelako zerbait. Bestela, aurki beste istripu bat gertatuko da. SEBAS

Sasietak tonerrak jasoko ditu

Sasieta Mankomunitateak bilketa berri bat hasi du abenduan: inprimagailuetako toner eta kartutxoena, hain zuzen ere. Helburua kartutxoei bigarren aukera ematea da, hauek berrerabiliz. Hemendik aurrera tinta-kartutxoa edo tonerra bukatzen denean, zaborretara bota beharrean, birziklatzeko aukera dugu. Enrike Enparantza Sasieta Mankomunitateko teknikariarekin hitz egiten izan gara gai honi buruz.

Nora eraman behar dira birziklatu nahi diren kartutxoak?

Edukiontzia berezi bat jarriko da leku publikoetan. Esate baterako udaletxe, liburutegi, kultur etxe, KZ gune edo kiroldegietan. Herriz herriko zerrenda zehatzagoa Sasietako Web gunean izango da, www.sasieta.net. Bigarren fase batean ikastetxe, merkatal gune eta informatika dendetan ere jarriko da.

Nola birziklatzen dira?

Kartutxoen kasuan lehendabizi barrutik ondo garbitu eta hustu egiten dira, gelditu diren hondarrak kentzeko. Ondoren berriz ere tintaz betetzen dira. Tonerren kasuan elementu mekanikoak dituzte: aipatutako lan guztiak egiteaz gain, piezak aldatu egiten dira. Plastikozko karkasa berdina da baina orriarekin kontaktuan dauden elementuak berriak dira.

Orduan berriz erabili ditzakegu?

Bai, hori da helburua. Kasu honetan birziklatzea esatea baina egokiagoa da berrerabiltzea. Estatu Batuetan, adibidez, berrerabilitako toner eta kartutxoak orijinalak baina gehiago dira. Han erabilitakoa erostea berria erostea baino arruntagoa da: han erabiltzen denaren %60 birziklatua da. European ere antzekoa gertatzen da, Alemanian esate baterako. Joera hau guregana ere ailegatuko da pixkanaka.

Eta hemen aukera hori ba al dugu?

Oraingoz Beasainen ireki berri da horretan arituko den denda: Birzikla izena du. Beraiek egingo dute kartutxo eta tonerren bilketa, birziklapena eta merkaturatzea. Beste herrietako informatika dendekin hitz egiteko asmoa dugu, beraiek ere produktu hau eskaini dezaten.

Baina kalitatezko produktua al da?

Bai noski, orijinalen eta berrerabilitakoen artean ez dago alderik. Tinta kopuru bera sartzen zaie eta, esan bezala, desgastatu daitezkeen piezak aldatu egiten dira. Berrerabilitakoa probatzen dutenek, horrekin jarraitzen dute.

Eta zer abantaila ditu?

Ingurumenaren aldetik, hondakin gutxiago sortzeaz gain, bere produkzioan erabiltzen diren lehengaiak eta energia aurrezten dira. Gainera produktu hau merkeagoa da, ez baita karkasa ordaintzen: berrerabilitakoa %40 merkeagoa da gutxi gorabehera.

Nori dago zuzenduta?

Sasietaren bilketa batez ere herritarrei zuzendua dago. Dena den, beste edonork ere erabili dezake: merkatariek edo bulegoetako langileek, adibidez.



Enpresa laguntzailea:




Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

Piska bat gehiegi ala?




Estaba yo pentsando en si aprovetsar este tarte para desearos felis navidas o para hablar de kómo puede ser posible que un juetz le diga a un pertsona vasca que “aunque ustez todabia no lo sabe, es de la ETA” –besarkada bero bat 18/98 sumarioko guztiei– cuando por la telebista escutxe a un hombre hablando de las abantailas de no sé que libreta de caja de ahorros...

Irakurle, aurreko lerroak irakurtzerakoan geratu zaizun aurpegi berbera geratu zitzaigun aurreko batean telebista publikoan iragarki berri bat entzun genuenean, Teleberrian kirol tarte zabaldu aurretik. Euskararen antz apur bat duen dialektokan ari zitzaiguna ez zen Zumarragako udaleko plenoan agintea duen hori, ezta Reala salbatuko omen duten txinatar horietako bat. Ez dakit ze produktu bankarioren abantailez ari zitzaiguna telebistan Hollywoodeko izarren akatsak eta eskandaluak era deigarrian azalerazteagatik

–ondoren ematen dituzten filmen kalitateagatik behintzat ez da izango– famatu egin den “funtzionario publikoa” zen.

Hau al da Eusko Jaurlaritzaren “piska bat es mucho” kanpainaren emaitza? Edo inork zer den ez dakien panpin beltz itsusi horren hikuntza berria ote? Ez dezala inork pentsa ustezko euskaldun zahar ilustratu pare hau euskaldun berrien kontura parre egiten ari denik. Ezta gutxiagorik ere!!! Pausu zail hori ematen ausartzen diren guztiak, mintzalaguna egitasmoan ausartzen diren euskaldun guztiak kasu, –berri/zahar dikotomia ez zaigu gustatzen– zorientzeko eta eskerrak emateko erabiliko dugu tarte hau bide batez, baina XXI. mendean publizitateari esker dirua irabazten ari den horrek hizkuntzarekiko horren errespetu gutxi erakustea piska bat gehiegi da, ala? Are gehiago Ibarretxek berak borondate apur batekin egin duen aurrerapausua ezagututa.

Gabonetako apaingarriak jartzea ondo iruditzen al zaizu? Gehiegi ala gutxiegi jartzen direla al deritzozu?



Javier Mateo



Benoa... Beharbada argi eta parafernalia gehiegi jartzen da bi herrietan. Nire ustez gastua izugarri handitzen da eta horrek kontsumoa areagotu besterik ez du egiten.

Ane Areizaga



Ukitu polita ematen dio herriari, baina argi gehiegi jartzen direla uste dut. Era berean, goizegi pizten dituzte. Herrietan hala bada, zer esanik ez hirietan! Ez dakit kontsumo baxuko bonbillak erabiltzen dituzten ala ez, baina aukera bat da.

Kontxi Delgado



Nire ustez sekulako dirutza xahutzen da alferrik. Haurren aitzakiarekin egiten da, baina... Detalletxo batzuk jarriko nituzke, herriak goitik behera apaindu beharrean. Egia esan, Zumarragakoak ikusgarriagoak dira Urretxukoak baino.

Pablo Paniagua



Argi gutxi batzuk jartzea ondo iruditzen zait, baina egiten dena zoramena da. Erakundeek energia aurrezteaz hitz egiten dute, baina ez dute esandakoa betetzen.

Gaia: Gizon-probari jarriak

Doinua: Misiolari baten moduan

Uxue Fernandez



Abenduaren 2a ekarri
nahi nuke bertso txokora,
Zumarragako plazan izan zen
ekitaldi bat gogora.
Lagun giroan sortuta egin den
apustu baten ildora,
gure herriak hurbildu dira
berriz baserri-girora,
herri-kirolak indartsu daude,
bizirik da GIZON-PROBA!

800 lagun baino gehiago
plazan bazen nahiko saltsa,
garaipena nork eskuratuko
zuen zaleen zalantza.
Plaza erdi bat gora-behera
demak Urretxura martxa
nahiz egin zuen, jendea gogoz
gelditu zelako antza,
ikuskizuna ez da bukatu
bidean da errebantxa!

Ezkio-Itsaso, Zumarraga ta
Urretxu elkarren aurka
plaza beteta, jendea bero
oihu eta zalaparta.
12 gizon inguru indarrez
harrizarrari tiraka...
Bukatu nahi dut errebantxako
pronostikoa botata:
Ezkio-Itsaso menderatuko
duen herririk ez da-ta.

iritziz iritzi

Josune Zarandona



Gabonak

Errutinaren erdian oasi txikia dira Gabonak. Ohikoak dira familiarterako afari eta bazkariak, lagunekin parrandak, opariak... tradizioak aginduta, ia derrigorrean egin beharreko konpromiso sozialak. Ohikoak dira ere elkartasuna, maitasuna eta behar dutenei laguntzeko mezuak. "Gabonetako espiritua" delakoaz ari naiz. Badirudi denak pertsona hobek izatera derrigorritu gaudela sasoi honetan. Espiritu honek bultzatuta, bidezko merkataritzako produktuak erosten ditugu, ezagutzen ez dugun lurralde batean, ezagutzen ez ditugun horiei laguntzeko. Etxean dugun janaria bildu eta atzerriko lurraldeetara bidaltzen dugu, arrotza zai-gun errealitate bat goxoago egingo dugula kobentzitura. Ez naiz ni asmo onekin egindakoa kritika-

tzen hasiko. Beste hausnarketa bat egitera nator. Izan ere, gosea ez da gabonetan bakarrik agertzen, tsunamiak ez dira urte amaieran bakarrik gertatzen eta zapalduta eta eskubiderik gabe bizirauten duten herriek urteko 365 egunetan noztzen dituzte injustiziarik krudelenak. Badira, herri hauek laguntzeko urte guztian zehar lana egiten duten elkarte eta pertsonak. Urteko egun guztietan gainontzekoen beharra izaten dutenak. Ez gaitzen engaina. "Gabonetako espiritua" geure buruarekin ditugun zorrak kitatu eta pertsona hobek garela sinestarazteko tresna da. Ez al gara inoiz ohartuko pertsona hobek izateko edo besteei gure elkartasuna adierazteko modurik onena egunero gauza txikiak egitea dela?

1986

Urola futbol taldea

Hona hemen Urolaren garai bateko infantil mailako taldea.

Zutik: Delfin Moreno 'Delfos', Iker Antia, Ramon Cantero, Xabier de Sosa, Mikel Okariz, Aitor Sarasua, Aitor Esnal, Mitxel Badiola, Jesus Hurtado eta Jesus Biain.

Makurtuta: Iñaki Aranburu, Unai San Vicente, Mikel Mesonero, Jose Carlos Ibarzabal, Jorge Andueza 'Pitu', Alex Albisua eta Jorge Damian.



UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JAVIER Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatuak
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84


Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60



Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz



☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52



Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



Lurdes Rodriguez Iparragirre, 1-Urretxu
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79



Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28
URRETXU



Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA




KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com



Labeaga, 9 Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurriak

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

Otamotz

Herri Aldizkaria
TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak...
- Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Urtean 12 euro.

- Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:
Zintzo-Mintzo elkarte
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu
- Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu: zm@euskalnet.net

ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT		OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT	
IZEN-DEITURAK		JAIOTZE DATA	
HELBIDEA		EHNA EDO NA	
TELEFONOA ETA E-MAILA		KONTU KORRONTEA	



SASIETA MANKOMUNITATEAK eguberri jai zoriontsuak opa dizkizue.
2008an ere, orain arte bezala, zuekin elkarlanean jarraitzea espero dugu.
Gogoratu, urtero bezala, jaien ondoren gabonetako **PINUEN BILKETA** egingo dugula konposta bihurtzeko. *Traste zaharren egunean atera behar dira.*



www.sasieta.net



SASIETA
MANKOMUNITATEA



Hona hemen nire artxiboan topatutako hainbat argazki bitxi.

Jesus Udabe 'Aresti'





ENTZUMEN ZUZENKETAN LEHENENGO ERAKUNDEA, ORAIN, ZUGANDIK GERTUAGO

Etor zaitez!

ENTZUMENAREN AZTERKETA DOHAIN!



Areizaga, 4 • Tel.: 943 72 98 83 • URRETXU

Maite Janeiro: Akordeoilaria, zer bestela?

Urretxu eta Zumarragako musika irakaskuntzaz hitz egiten den bakoitzean, Maite Janeiroren izena ateratzen da. Akordeoilari bikaina, 16 urterekin etxean eskolak ematen hasi zen eta 80ko hamarkada hasieran musika eskolaren sorreran lagundu zuen. Duela 20 urte geroztik Elgoibarren bizi da, bere senarra bertakoa baita, baina Urretxu eta Zumarraga bihotzean daramatza.

Maite Janeiro, Elgoibarko musika eskolako kontzertu aretoan.



Zu Zumarragan jaio zinen, baina zure familia ere bertakoa al da?

Ez. Nire gurasoak galziarrak dira. Nire aita Zumarragara lanera etorri zen eta gero Galiziara itzuli zen ezkontzera. Anaia eta biok Zumarragan jaio ginen. Anaia Pedro ni baino sei urte gazteagoa zen eta duela lau urte hil zen. Handik gutxira aita hil zen eta ondoren izeba bat. Honakoa ez da nire bizitzako unerik gozoena.

Ba al dakizu aitak zergatik aukeratu zuen Zumarraga?

Elgoibar inguruan bizi diren galziarrak zonalde batekoak direla eta Zumarraga ingurukoak beste batekoak direla konturatu naiz. Zumarraga aldekoak Ribeiro ingurukoak dira. Handik atera zen batek Zumarraga ondo zegoela esango zuen eta ondorengoak bertara joango ziren...

Nola gogoratzen dituzu gurasoak?

Aitak Orbegozon lan egin zuen eta akordeoia jotzen zuen. Berak irakatsi zidan lehen abestia, batzuetan elkarrekin jotzen genuen... Berari esker maite dut akordeoia eta ahalegin handia egin zuen nik ikasi nezan. Ama, berriz, etxekoandrea da. Biak herri berekoak ziren. Aitak 40 urte zituen ezkondu zenean eta amak 18. Gurasoek oso gogor lan egin behar izan zuten seme-alabak aurrera ateratzeko. Anaia oso txiki jaio zen, aitak lan istripua izan zuen eta bederatzi hilabete eman zituen ospitalean... Orbegozoko greba ere gogoratzen dut, nahiz eta haurra nintzen.

Zure ama Zumarragan bizi al da?

Ez. Aita 58 urterekin jubilatuta zen eta Galiziara itzuli ziren. Aita hil egin zen eta amak bertan jarraitzen du. Nik beraien Zumarragako etxean eman nituen ezkondu ondorengo lehen urteak.

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Legazpi auzunean bizi ginen eta bizilagunen arteko harremana oso ona zen. Etxerik etxe ibiltzen ginen. Orain askoz ere indibidualistagoak gara. Dagoeneko ez dugu harreman sakonik bizilagunekin. Balore asko galdu dira.

Non egin zenituen ikasketak?

Zumarragan hasi nintzen, baina oraindik haurra nintzela, 10 urterekin, Donostiako barnetegi batera joan nintzen. Akordeoia oso gustuko nuen eta bandako zuzendaria zen Gonzalez Bastidak eman zizkidan lehen eskolak. Oinarrizko lezioak eman zizkidan, baina dohainak nituela ikusi zuen eta aitari probetxu atera behar zitziola esan zion. Bikondoarengana bidali ninduten, Donostiara. Aitak egokiena gainontzeko ikasketak ere bertan

egitea zela pentsatu zuen. Bi urte eman nituen barnetegi batean eta beste bi beste batean. Hamabost egunean behin itzultzen nintzen etxera. Gurasoek sekulako ahalegina egin zuten.

Bera akordeoilaria izanik, ilusio handia egingo zion zuk bere pausoak jarraitzeak...

Noski! Gainera, bere aitak ere eskusoinua jotzen zuen, nire osaba batzuek ere

“Aitari esker maite dut horrenbeste akordeoia eta ahalegin handia egin zuen nik jotzen ikas nezan”

bai... Familian tradizio handia dago. Odolean daramagu. Akordeoia nire bizitza da.

Donostian lau urte eman ondoren, ez al zitzaizun gogorra egin zure jaioterria itzultzea?

Ez. Izan ere, sekula ez dut arazorik izan harremanetarako. Oso irekia izan naiz beti. Goi mailako Batxilergoa egiteko itzuli nintzen. Institutuan egin nuen. Akordeoi karrera, berriz, 16 urterekin bukatu nuen.

Batxilergoa bukatu ondoren, ikasten jarraitu al zenuen?

Errebalida egin nuen. Matematika oso gustuko nuen, baina dagoeneko etxean eskolak ematen ari nintzen eta uzteak pena ematen zidan. Izan ere, 60 bat ikasle nituen ordurako. Solfeoa eta akor-

deoia irakasten nituen. Hori dela eta, zer edo zer gehiago ikasteko, Maritxu Peñagarikanoren akademiara joan nintzen administratibo ikastera. Hiru urte ondoren, Merkataritza Unibertsitatera joan nintzen azterketa egitera eta, egia esan, ez dakit zer titulu dudan.

Zenbat urtetan eman zenituen eskolak etxean?

16 urterekin hasi nintzen eta musika eskola abian jarri genuenean utzi nuen. Zazpi edo zortzi urtetan eman nituen eskolak etxean. Mila Osinalde etorri zitzaidan musika eskola ireki nahi zutela esatera. Eusko Jaurjaritzak ikasle kopuru jakin bat eskatzen zien eta eskola partikularrak ematen genituen guztion ikasleak behar zituzten. Mila Osinaldek, Carmina Colinasek eta hirurok jarri genuen abian musika eskola: hiruron ikasleak elkartzu sortu zen.

16 urterekin hasi zinela esan duzu. Nola moldatzen zinen?

Ikasleren bat ni baino zaharragoa zen... Izaskun Bernaras andereñoa gogoratzen dut. Ikasle asko nituen eta bizilagunen batek nazka-nazka eginda bukatuko zuen... Gela guztietan egoten zen ikasleren bat entseiatzen.

Zu zeu irakaslea zara, baina musika ikasketak ez dira sekula bukatzen. Gonzalez Bastida eta Bikondoaz gain, irakasle gehiago izan al dituzu?

Karrera Bikondoarekin egin nuen. Tekladun akordeoiarekin ikasi nuen, baina gero botoidunarekin jotzen ikasi beharra izan nuen. Baita Basettidun akordeoia jotzen ere. Carlos Iturraldekin irunen duen akademiara joan nintzen hori ikastera. Bestalde, urtero ikastaroren bat egiten dut. Musika ikasketak ez



1974: Lurra dantza taldeko kideekin, ezkerretik lehena.

dira sekula bukatzen. Ez dut lehengo arintasuna eta eskolak emateak denbora asko kentzen dit, baina esperientziak laguntzen dit jotzeko orduan. Gainera, egungo musika maila oso baxua da.

Nolatan etorri zinen Elgoibarrera bizitzera?

1981ean ezkondu nintzen eta jaio nintzen etxean jarri ginen bizitzen. Izan ere, ordurako gurasoak Galizian zeuden. Seme nagusiak bi urte zituenean etorri ginen Elgoibarrera bizitzera. Elgoibarko musika eskola ireki zen eta, senarrak bertan lan egiten duenez, curriculumak bidali nuen. Elgoibarren oso gustura nago, baina Zumarragakoa naizela esaten dut beti.

Orain Lasarteko Zero Sette akordeoi orkestran jotzen duzu. Zein taldetan aritu zara lehenago?

16 urterekin Doble Unión izeneko taldean jotzen hasi nintzen. Azkoitiko, Legazpiko eta Zumarragako lagunak geunden. Eibarren egiten zen musikari gazteen lehiaketa batean parte hartu

genuen eta bigarrenak gelditu ginen. Berbenetan jotzen genuen. Francoren azken urteetan hasi ginen, jaialdietan euskaraz abesten hasi zen garaian, eta guk ere euskaraz abesten genuen: Carrerorena; *Guk euskaraz, zuk zergatik ez...* jotzen genituen; nahiz eta guztioz erdaldunak ginen. Abeslaria andaluziar petoa zen! Batzuetan abesti ezagunak instrumental eran jotzen genituen eta ikusleek abesten zituzten. Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako festetan jotzen genuen.

Nolatan hasi zinen beraiekin?

Beraiek etorri ziren niregana. Teklatua jotzen nuen. Ez nuen arazorik izan, tekladun akordeoia izan baitzen jo nuen lehenengoa. Sintetizadoreen kontua jardunez ikasi nuen. Halako taldeetan emakumezkoak ez ziren ohikoak. Taldekideek abesteko esaten zidaten, baina sekula ez zait gustatu.

Ez al zenuten sekula poliziarekin istilurik izan?

Batzuetan polizia bertan zegoela jabe-

tzen ginen. Haiek ez zuten euskaraz abesten uzten, baina ikusleek euskaraz abestea nahi zuten. Halakoetan instrumentalak jotzen genituen. Behin, jotzera heldu eta antolatzaileek ea abesti guztiak euskaraz abesten genituen galdetu eta bezperako taldea erdaraz abestegatik harrika bota zutela esan ziguten. Buruz genekizkien bospasei kantak behin baino gehiagotan jo genituen, instrumental batzuk ere eskaini genituen... eta ikusleak oso pozik gelditu ziren.

Noiz eta zergatik utzi zenuen taldea?

22 urterekin ezkondu nintzen eta urteren bat lehenago utzi nuen. Instrumentuak kontzertuetan ateratako diruarekin ordaindu genituen, epeka. Zumarragako beste kidea sartzea eta dena izorratzea dena bat izan zen. Egun batean entseatzera joan eta beste neska bat aurkitu nuen. Nire ordeaz eraman zuen. Ez nuen nire eskubideen alde egiteko modurik ikusi eta istilurik sortu gabe taldea utzi nuen. Hala, urtetan taldearentzat instrumentuak lortzeko jo nuen eta dirua ikusteko garaia heldu zenean alde egin behar izan nuen.

Talde gehiagotan jo al duzu?

Atsekabe handia izan nuen eta irakaskuntzan eta ikaskuntzan murgildu nintzen. Beste talde batzuetan aritutako jendeak Askotan izenekoak sortu zuen ezkontzetan jotzeko eta nire bila etorri ziren. Aurreko saioa gaizki bukatu zen, baina talde batean jotzeko gogoia nuen. Izan ere, ordura arte asteburuetan musika jotzeko ohitura nuen eta kontzerturik gabe aspertu egiten nintzen. Hori dela eta, baiezkoa eman nien. Antonio Valverde, Anjel Guinoak, Luis San Josek, Patxi Urrestarazuk eta nik osa-

zuek bai jakin!

tzen genuen taldea. Ezkondu baino apur bat lehenago hasi nintzen beraiekin. Neure instrumentua eraman nuen, aurreko taldekoa errepika ez zedin.

Zenbat urte eman zenituen beraiekin?

Asko. Duela zortzi bat urte utzi genuen. Betiko musika jotzen genuen (pasodobleak, valsak, boleroak...), baina modako abestiak ere ikasi genituen: *El tractor amarillo*, *Macarena*... Ezkontzetan ez ezik, inguruko jatetxe gehienak ezagutu genituen, Zumarragako eta Urretxuko auzoetako jaietan eta afari herrikoietan ere jo genuen.

Oraingo ezkontzetan disc-jockeyak nagusi dira. Zer iruditzen zaizu?

Zuzeneko musika nahiago dut, baina... Gainera nire semea disc-jockeya da! Akordeoia eta perkusioa jo zituen, baina utzita ditu. Alabak ere akordeoia jotzen du, baina perkusioak etorkizun handiagoa duela dio. Bera ere Zero Sette orkestrako kidea da, baina perkusioa jotzen du. Asko pozten nau berarekin jotzeak.

Lehengora itzuliz, talde gehiagotan jo al duzu?

Lurra dantza taldeko kidea izan nintzela esatea ahaztu zait! Taldeko lehen akordeoilaria izango nintzen, beharbada. Nire ondoren Joseba Salaberria hasi zen, nire ikaslea izandakoa. Irrintzi taldearekin eta Gabiriako dantzariarekin ere jo izan dut. Bestalde, Bikondoaren akordeoi orkestran ere aritu naiz.

Saririk irabazi al duzu?

Dirudienez nire garaian akordeoilari hobeak zeuden, beti bigarren saria eskuratzen bainuen! Lehiaketetan oso urduri jartzen nintzen. Kontzertuak gehiago gustatzen zaizkit, nahiz eta horietan ere urduri jartzen naizen.



Maite Janeiro, eskubitara, bere gurasoekin eta anaiarekin.

Berotzea kostatzen zait, baina gero ez dago geldituko nauenik... Dena den, gutxitan jo dut bakarka.

Irakaskuntzan 30 urte baino gehiago daramatzazu eta Urretxu eta Zumarragan akordeoilari bikainak atera dira. Batzuk zure eskuetatik pasatuko ziren...

Gorka Hermosa ez zen nire ikaslea izan, baina Javier Ramos bai. Ramos anaiak nire etxera etortzen zirela oroitzen dut. Bata txikia zen eta bestea oso altua. Dagoeneko ikusten zen bata akordeoilaria izango zela eta besteak beste bide bat hartuko zuela. Ikasle ohi batzuekin oso harreman ona dut. Horietako birekin sarri samar elkartzten naiz Zumardin bazkaltzeko.

Sarritan joaten al zara Zumarragara?

Ez zait ia familiarik geratzen bertan. Eitzagan bizi den lehengusu bat beste-

rik ez dut. Dena den, sarritan joaten naiz. Zumarraga bihotzean daramat. Elgoibarren oso ondo hartu naute, baina Zumarragakoa naiz. Hango bizilagun ohiak oso lagunak dira, baina asko kostatzen zait gurasoen etxe ingurura joatea. Izan ere, oroitzapen asko etortzen zaizkit burura.

Nola ikusten duzu herria?

Oso aldatuta dago. Niretzat Elgoibar baino politagoa da. Zumarragaz hitz egiten dudanean, Urretxuz ere ari naiz. Nire senarrari hiltzen naizenean Zumarragan hilobiratzeko esaten diot, txantxetan. Aukera suertatuko balitz, itzuli egingo nintzateke.

Musikaz gain, zaletasun gehiago ba al dituzu?

Ez. Asebete egin nau eta ez dit beste ezertarako denborarik utzi. Lanbidea eta zaletasuna da.

EUSKAL HIRIA SUTAN

XABIER MONTOIA



Xabier Montoia

Euskal hiria sutan

Bikoteen arteko inkomunikazioa, droga-salerosketa lizitoak eta honek utzitako mamu beltzak, garapenaren izenean mar-txan jarritako azpiegiturak, erakunde publi-koen gehiegikeriak... Egoera krudel hauei aurre egiteko pertsonaiek erabiltzen dituz-ten jokabideen ispilu da ipuin-liburu hau. Une batzuetan badirudi euren desgraziei aurrea hartzen dietela, baina, zas!, ustezko garaipena baino ez da. Arduraz jokatu

ordez, erosokerian erortzen dira guztiak. Ez da tragedia bat. Montoiak fikzio-munduan sartu ditu Gasteiz, Durana, Bilbo... eta ingu-ruko tabernak, baserriak eta kaleak eta AHT, Corte Ingles, Arkaute edo Alcala Mecoko bizidunak. Errealitatea gandurik gabe ikusi eta ulertzeko liburu bat baino gehiago da. Atxagaren elkarbizitzarako eremu utopiko ideala sutan jartzeko hauspoa.

Oihane Zabaleta


Inoren ero ni

Inoren ero ni

BAP!!en musika entzuten hasi nintzenean, harrituta gelditu nintzen egiten (edo egin) zutenarekin. Entzun ahala, beti-betiko barruan gelditzen den banda horietarikoa da. 1996an desagertu zen taldea, baina 2004 hasieran BAP!!eko hiru kidek eta gita-rrista batek Inoren ero ni taldea osatu zutela eta diska bat kaleratu behar zutela (*Inoren ero ni*, 2004, Metak) jakin nuen. Atera berri-tan erosi nuen, eta, egia esan, segituan

harrapatu ninduen. *Inoren ero ni*, hamarka-da batean pertsona eta musikari batzuk bizi izan duten garapenaren isla perfektua da. Eta hiru urte pasatxo besterik ez dituen arren, klasiko bihurtu da. Indarra, haserrea, gordintasuna, erritmo bortitzak, base erritmi-koa paregabea eta xehetasun eder bezain zainduak. Binilo bat kaleratzekotan dira. Ez galdu zuzenean ikusteko aukera.

Igor Susaeta




Howard Hawks

Rio Bravo

Urtea eta zikloa amaitzeko, Howard Hawkxen *Rio Bravo* izango da ikusgai Zelai Arizti aretoan abenduaren 28an. Azken urteotan bezala, *Grand Reserve* atalaren eskutik, klasiko bat pantaila han-dian ikusteko aukera luzatzen du ButaK21 zineklubak. Western generoko film ezagun eta gogoangarrietako bat da *Rio Bravo*. John Wayne sheriffak espetxeratu berri duen gaizkilea askatzera datozen zaldunei

aurre egin beharko die. Hawksek lan horre-tarako talde bitxi batez inguratzen du Wayne, Dean Martin mozkorra, Walter Brennan agurea eta Angie Dickinson ede-rra. Ehunka aldiz kopiatu den formula origi-nala film honetan jaio zen: gaizkileek ingu-ratuta dagoen leku itxi batean, pertsonaia kontrajarriez osatutako talde batek aurre beharko dio egoerari.

ButaK 21 zineklub taldea



Merkatariak euskaraz? Pozik, gainera!

Urola Garaia Udal Elkarteak eskualdeko merkataritza guneetan euskararen erabilera sustatzeko planarekin bat egin duten merkatori talde berriak aurkeztu ditu eta 2007an aritutakoei eskerrak eman dizkie. Beraietako batzuekin hitz egin dugu egindako lanari buruz.

Ekitaldia Zelai Arizti kultur etxean izan zen abendua hasieran. Bertan, Beatriz Perez Urretxu eta Zumarragako Bitartean merkatori elkarteko ordezkariak, Olatz Elustondo Zumarragako Udaleko Euskara teknikariak eta Aritz Urien Emun enpresako hizkuntza normalizazio teknikariak parte hartu zuten.

Urienek eta Elustondok 2007an egin diren ekintzen laburpena eskaini zuten eta 2008rako lan ildoak aurkeztu zuten. Aurten zenbait merkatori talde osatu dira eta horiek euskarari eta merkataritzari buruzko solasaldiak izan dituzte. Bestalde, kartelak egiteko ikastaroak eskaini dira eta inprentetan euskararen erabilera sustatu da. Teknikariak gustura daude merkatarien parte hartze eta prestutasunarekin. Hori dela eta, eskerrak eman zizkieten.

Urola Garaian 150 denda inguru dira zerbitzua euskaraz emateko gai direnak eta teknikariek guztietara heldu nahi dute. Merkataritza guneetan euskararen erabi-

lera sustatzeko planarekin bat egin duten dendari gehiago lortu dituzte 2008rako. Legazpin Alberdi jantzi-dendak, Andere umeen jantzi-dendak, Auzmendi iturgintzak, F-8 argazki-dendak, Hariz-Hari jostun-dendak, Iñaki zapata-dendak, Laga garbiketa-dendak, Lanbroa belar-dendak, Txomin iturgintzak, Txomin Zubeldia edari-dendak eta Ogi Berri okindegiak bat egin dute egitasmoarekin.

Urretxu eta Zumarragan Agirre eta Aranburu harategiek, Etxaniz arma-dendak, Nekotz albaitaritza, Pertxingoa jantzi-dendak, Urdangarin burdindegia eta Ureder estetika zentroak parte hartuko dute 2008ko egitasmoetan.

Aipatutako hauek guztiek solasaldiak izango dituzte eta aurten abian jarri diren gainontzeko ekimenak ere mantenduko dira. Bestalde, supermerkatu handien eta frankizien konpromisoa lortzeko lan egingo da. Gainera, mintzalaguna ekimena abian jarri nahi da euskaraz hitz egiteko

erraztasunik ez duten merkatarientzat.

Euren parte hartzea ezinbestekoa denez eta oso ondo erantzuten ari direnez, 2007ko egitasmoetan parte hartu dutenei errekonozimendua eskaini zitzaizkien ekitaldia amaitzeko. Urretxun Argizti optikak, Berriki jantzi-dendak, Imajin eta Xarmanki estetika zentroek eta Kuttun mertzeriak jaso zuten esker ona. Zumarragako artean, Garbiñe tindategiak, Iraeta estankoak, Izagirre janari-dendak, Kizkitza oihal-dendak, Kux-Kux umeentzako jantzi-dendak, Lanbroa belar-dendak, Salegi harategiak eta Urki liburu-dendak jaso zuten errekonozimendua.

Bukatzeko, Legazpin Arlgar elektrizitateak, Alkain elektronikak, Apatxo liburu-dendak, Itziar belar-dendak, Kixka osagarri-dendak, Korosti kafe-dendak, Lasandu parafarmaziak, Kale Nagusiko loteria-dendak, Mirentxu mertzeriak eta Poxpolin umeentzako jantzi-dendak jaso dute esker ona.


1-Nolatan animatu zinen bat egitera? 2-Gustura aritu al zara? 3-Zer esango zenieke animatu ez direnei?

Euskaraz?

Pozik, gainera!

Fernando Salegi

Harakina



1. Euskara indartzearen aldeko ekimen ororen alde nagoelako. Euskara bultzatu behar da. Horri uzten badiogu, akabo!
2. Gustura aritu naiz. Bileretako giroa oso ona da eta bezeroek halakoekin bat egitea eta euskara zaintzea estimatzen dute.
3. Jendeari joatea eta parte hartzea gomendatzen diot. Beldurra galdu eta aurrera! Oso aberasgarria da.

Arantxa Iraeta

Tabako-saltzailea



1. Nolatan? Euskararen alde egiten den guztia ondo iruditzen zaidalako.
2. Bi astean behin bileretara joan naiz, kafetxo bat hartu dut eta solasaldian parte hartu dut. Oso gustura aritu naiz.
3. Ez zaio denbora asko eskaini behar eta euskarak merezi du bere alde zer edo zer egitea.

Kizkitza Zendoia

Oihal-saltzailea



1. Merkataritzan euskara bultzatzeko zela esan zidaten eta animatu egin nintzen. Helburuekin bat nator.
2. Gustura joan naiz bileretara. Merkatariontzako ere probetxugarria da elkartzea eta gure arazoez eta erronkez hitz egitea.
3. Besterik gabe, animatu daitezela. Ni behintzat, aurrerantzean ere halako ekimenetan parte hartzeko prest nago.

Arrate Saez

Estetizista



1. Laguntza eske etorri ziren eta ekimen interesgarria zela iruditu zitzaidan.
2. Gure arteko giroa ona da eta zalantzak argitzeko balio izan digu. Halako bilerak oso egokiak dira merkatariontzat.
3. Oso gutxi kostatzen da eta zer edo zer hobetzeko eskaintzen zaizkigun aukera guztiak aprobetxatu behar ditugu.

Paco eta Aitor de Miguel: Saskibaloia bi belaunaldi

Urretxu eta Zumarragan De Miguel abizena aipatzea saskibaloia aipatzea da. Paco de Miguel aita Goierrin aritu da kluba sortu zenetik eta Aitor semeak, berriz, talde nagusian jokatzen du. Aurten etorri da, Azpeitiko Iraurgi taldean bi denboraldi eman ostean.

Paco eta Aitor de Miguel, Urretxuko Aldiri kiroldegian.



Paco, noiz eta nolatan hasi zinen saskibaloian?

Paco de Miguel: 16 urterekin hasi nintzen. Lehenago ez zegoen talderik hemen. La Salle-Castelblanch taldean hasi nintzen. Bi urte eman nituen bertan, 1969an Urretxura pasatu nintzen arte. 1969tik 1989ra Goierri aritu nintzen, etenik gabe. Semea senior mailara pasatzeko zenean taldea desagertze- ra zihoan eta itzuli egin nintzen. Inork ez zuen ardura hartu nahi. Autonomiko mailara igotzea lortu genuen. Xabi Chicok hartu zuen gero taldea.

Zenbat urtetan jokatu zenuen?

P.C.: Urretxun Junior mailan hasi nintzen eta 28 urte bete arte jarraitu nuen. Azkenerako entrenatzailea eta jokalaria nintzen, baina ez zen egokia eta utzi egin nuen: aulkian nengoenean jokoan zeudenek baino hobeto egin nezakeela uste nuen, baina ez zen hala. Hori dela eta, jokatzeari utzi nion eta entrenatzaile lanean buru-belarri hasi nintzen. Lehen taldean aritu nintzen. Gero Anton Rodriguez aritu zen bi urtez eta berak utzi zuenean berriro lehen taldea hartu nuen. 1987-88 denboraldian Bigarren Autonomiko mailara igo ginen, baina hurrengo urtean jaitsi egin ginen. Urte hartan entrenatzeari utzi nion. Diruagatik edo semeak behar zuelako bakarrik itzuliko nintzela esan nion neure buruari. Eskaintza profesionalik ez nuen izan, baina semeak nire beharra izan zuen.

Garai hartan Goierri- k une gogor- rak bizi izan zituen.

P.M.: Taldea erregionaleko Bigarren Mailan zegoen, entrenatzaile- rik gabe zegoen, jokalariek kamisetarik ez

zuten... Emazteak bizitza osoa saskibaloian eman ondoren seme-ari laguntzeko garaia zela esan zidan. 2001. urtean izan zen hori. Zulotik ateratzea lortu genuen eta ordutik hiru maila igoera ezagutu ditugu.

Nolatan duzu halako saskibalo- i zale- tasuna?

P.M.: Futbole- an aritzen nintzen. Atezaina nintzen, baina orde- zkoa. Nahiago izan nuen kirole- z aldatu orde- zko jarraitu baino. Garai hartan ez zegoen saskirik herrian. La Sallera saski bat eraman zuten eta tiro lehiaketa bat

Paco de Miguel:

“Pena bat dut: ibilbide ia

guztia Urretxun osatu

banuen ere, lehen taldea

Zumarragan agurtu nuen”

antolatu zen. Ondoren taldea sortu zen eta haiekin hasi nintzen. Ideiarik ez genuen, baina Epifanio fraideak irakatsi zigun apur bat. Taldeko delegatua Jose Luis Esnal ikasle ohien elkarteko kidea zen. Epifanio bidali zutenean, Esnalek hartu zuen taldea. Bera izan zen Goierri taldea sortu zuena.

Jokatzea ez ezik, entrenatzea izugarri atsegin duzu.

P.M.: 28 urterekin hasi nintzen eta hamar denboraldi eman nituen jarraian. Goierriren talde guztiak ezagutu nituen. Pena bat dut: ibilbide ia guztia Urretxun osatu badut ere, lehen taldea

Zumarragan agurtu nuen. Izan ere, Urretxuko kiroldegiko teilatua erori egin zen eta Zumarragan bukatu genuen denboraldi hura.

Goierri- n jarraitzen al duzu?

P.M.: laz utzi nuen. Inguruan ibiliz gero, geroz eta lan gehiago egitea tokatzen da. Hori dela eta, guztiz uztea erabaki nuen. Dena den, partidak ikustera joaten naiz.

Saskibalo- iak asko eman al dizu?

P.M.: Eman? Behin batean, taberna batean, gure ezagun batek euskara ikasi zuela esan zuten. Lagun batek saskibaloia eman diogun denbora guztia euskara ikasteari eskaini izan bage- nio primeran hitz egingo genuela esan zigun. Ez zitzaion arrazoirik falta, baina saskibaloia gustuko dugu eta horregatik eskaini diogu horrenbeste denbora. Bestalde, lagun asko egin ditut saskibaloia- ri esker. Gipuzkoan mundu honetan dabil- tzen guztiak ezagutzen naute. Hori oso polita da eta poztasun handiak ere izan ditut, bestela ez ginen hor izango. Goierri Gipuzkoako bigarren talde zahar- rrena da eta garai batean hirugarren talde garrantzitsuena ginen. Asturias aldean ere jokatzen genuela oroitzen dut eta gurearekin batera zaletuen auto- busa joaten zen.

Zeintzuk dira saskibalo- iak eman diz- kizun poztasun horiek?

P.M.: Tau taldearekin harreman handia nuen. Ander Txintxurreta gurekin zene- an beraiengana zuzendu nintzen, Askatuak taldeak ez baitzion eskaintza sendorik egiten. Tau taldean ikustea oso poztagarria izan zen. Bestalde, Asier de la Iglesia saskibaloitik bizi da. Horrek guz- tiak gure lanak zer edo zertarako balio



1969: Goierri kirol elkartearen lehen saskibaloia taldea.

duela erakusten du. Nire semea bera, Azpeitian izan da orain arte.

Zein izan da Goierri ikusi duzun jokalaririk onena?

P.M.: Joxe Murua, alde handiarekin gainera. 16 urterekin Bilboko Kas taldera eramane zuten. Nahi izan balu, gorago helduko zen. Eskaintza faltarik ez zuen izan. Baskonian ere jokatu zuen. Osoena bera izan da. Gurekin arituz zenean, Hirugarren Mailan, partida guztietan 40 puntu baino gehiago sartu zituen. Partida batzuetan 60 puntu baino gehiago sartu zituen.

Asko aldatu al da saskibaloia ordutik hona?

P.M.: Ez genituen oraingoan erosotasunik. Behin, palak hartu eta La Salleko patioko elurra kendu behar izan genuen jokatu ahal izateko. Dutzarik ez genuen.

Urretxun hasi ginenean, Ederrena pilotalekuko zinean dutxak eta aldagelak egokitu behar izan genituen. Pilotalekuan eta plazan jokatzen genuen. Partidak igandeetan izaten ziren, meza ondoren, eta jende asko etortzen zen gu ikustera. Erratza pasatu eta kantxa markatu behar genuen partidak hasi aurretik. Oraingoek, berriz, dena alde dute. Denboraldi honetan gurasoak dirulaguntza ordaintzen hasi behar dira. Bada garaia! Izan ere, guk eramaten ditugu partida guztietara, arropa ematen diegu... eta ez dute batere lagutzen. Bederatzi talde eta 120 jokalaria edukitzea oso garestia dela kontuan izan behar da.

Nola ikusten dituzu egungo gazteak?

P.M.: Ezin dut gauza handirik esan, urteak baitaramatzat entrenatu gabe.

Dena den, ondo entrenatzen dutela uste dut. Teknikoki gu baino hobeak dira. Irakasle prestatuak dituzte. Guk indar hutsez irabazten genituen partidak, teknikoki kaskarrak ginen.

Semea zurekin hasi al zen jokatzen?

P.M.: Futbolekin hasi zen, Urolan! Hiru neska ere baditugu, baina haiek ez dira zaleak. Aitorrek etxean saskibaloia giroa bizi zuen eta azkenean saskibaloian hasi zen. Umetan La Sallera eramaten nuen jokatzen ikastera.

A.M.: 13 urterekin hasi nintzen Goierriin, baina umetan jasotako lezioak gogoratzen ditut.

Jokalaria ona al da?

P.M.: Eroso samarra da. Ez zaio arriskatzea gustatzen. Azpeitian aukera izan zuen, baina ez zuen asko jokatzen eta berak nahiago du herrian gelditu... Eskolta postuan jokatzen du. Bizkorra da, koordinatua da eta azkarregi botatzen du baloia saskira.

Zer diozu zuk aitaz?

A.M.: Jokalaria bezala ez dut ezagutu, baina entrenatzaile zorrotza da. Partida berak markatutako erritmoan jokatzea eta arbela erabiltzea gustatzen zaio. Partida zoroak ez zaizkio batere gustatzen. Entrenatzaile greziarren modukoa da. Buila asko egiten du, gainera.

P.M.: Lehengo eskolako entrenatzailea naiz, egun jokalariei libreago jokatzen uzten zaie. Zer egin ez dakigun bakoitzean, astean zehar entrenatutako sistema erabili behar da. Beste jokoa ikusgarriagoa da, baina garrantzitsuen partida irabaztea da.

Aita aholku zalea da?

A.M.: Ez, baina aholkuren bat eman izan didanean kasu egin diot. Umetan

harmailatik keinuak egiten zizkidala gogoratzen dut. Ia beti arrazoia zuen, gainera. Izan ere, kanpotik errazago ikusten da.

Azpeitiko Iraurgin aritu zinen, Gipuzkoako bigarren taldean. Zer moduzko esperientzia izan zen?

A.M.: Denboraldi eta erdi eman nuen bertan. Lehen denboraldian gustura izan nintzen. Ez nuen asko jokatzen, baina entrenatzailearekin ondo konpontzen nintzen eta gustura joaten nintzen entrenamenduetara. Beste entrenatzaile bat ekarri zuen eta honek filosofia profesionala ekarri zuen. Base jartzen ninduen, baina postu horretan ez naiz abila. Gutxitan jartzen ninduen eta urduri ateratzen nintzen. Gainera, oso gaizki portatzen zen nirekin. Hori dela eta, Goierriera itzultzea erabaki nuen. Etxean bezala, inon ez. Ez dut presiorik, asteburuetan ez dut bidaia luzerik... Iraurgirekin Galiziaraino joaten ginen. Larunbatean joatea eta igandean itzultzea gogorra zen. Batzuek soldata

Aitor de Miguel:

“Umetan aitak harmailatik keinuak egiten zizkidala gogoratzen dut. Ia beti arrazoia zuen”

zuten, baina nik laguntza bat besterik ez nuen kobratzen. Asier de la Iglesia zumarragarra, berriz, Castelló-n dago eta soldata ordaintzen diote.



Aitor de Miguel mutikotan, makurtuta eskubitik bigarreana, Goierri taldearekin.

P.M.: Iraurgira jokalariei egurra ematera etorri zen entrenatzailea profesionala da. Momentu hartan talderik gabe zegoen, baina Aitorrek taldea utzi eta gutxira eskaintza hobea jaso zuen. Bruesaren maila berean jokatzen duen Gijon talde-
ra joan zen.

A.M.: Hilabete eta erdi besterik ez nuen jasan berarekin. Herrian gusturago nago. Goierriin saskibaloian jokatzen dute eta Orbegozon karrera amaierako proiektua egiten ari naiz.

Bukatzeko, saskibaloia talde beraren jarraitzaileak al zarete?

A.M.: Aitak saskibaloia jarraitzen du, ez talde zehatz bat. Ni Joventut taldekoa naiz betidanik, baina ez naiz zaletu sutsua. Jokalariak gehiago jarraitzen ditut taldeak baino.

P.M.: Niri saskibaloia partidak ikustea gustatzen zait, berdin da zein mailata-


koak diren: kadeteak, neskak, Bruesa, NBA... Astean partida asko ikusten ditut. Bruesak hemengo 48 bazkide zituen iaz eta aurren, berriz, bost baka-
rrik ditu.

Saskibaloia oso gertutik jarraitzen duzu, beraz.

P.M.: Seme-alabak txikiak zirenean, oporretan saskibaloia jardunaldietara joaten nintzen familiarekin: Murtzian, Katalunian... izan ginen. Ni eskoletara joaten nintzen eta gainontzekoak hondartzara. Nire poltsikotik ordaintzen nituen eskolak. Egun, zorionez, Goierri ordaintzen dizkie beren kideei. Dena den, ez dira gazte asko animatzen.

Ez al dizu penarik eman saskibaloia talde profesional bat entrenatzeko aukerarik eduki ez izanak?

P.M.: Ez pentsa... Hemen nahikoa lan izan nuen.



Alex Areizaga

Informatika

Elebila: euskarazko bilatzailea

Elebila (www.elebila.eu) euskarazko lehen Internet bilatzailea da. Google, eta Yahooren moduko Interneteko bilatzaile ezagunen funtzioak eskaintzen ditu baina kalitatezko euskarazko emaitzak lortzeko bermearekin. Elhuyar Fundazioko I+G sailak garatutako teknologia du oinarri eta euskarazko bilaketak burutzerakoan jasaten ditugun arazo edo muga nagusiak gainditzen ditu. Euskarazko bilaketak egiteko orduan bi arazo dira nagusiak: euskarak Interneten duen garrantzia erlatibo txikia eta atzizkien erabilera zabala. Euskarak sarean duen pisu txikia dela eta, *anorexia* edo *energia* bezalako hitz teknikoak bilatuz gero, euskaraz idatzitako dokumentuak inoiz ez dira lehen emaitzen artean agertzen. Izan ere, hitz horiek beste hizkuntza batzuetan ere existitzen dira. Elebilak arazo hau konpontzen du. Bestalde, hitzak bilatzerako orduan, Elebilak atzizkiekin agertzen diren kasuak ere bilatzen ditu, beste bilatzaile askok ez bezala.



Izaro Soraluze

Osasuna

Azidotasuna

Gabonetako gehiegikeriek urdaileko azidotasuna eragin dezakete. Sasoi honetan proteina, grasa eta toxina asko jaten ditugu eta hauek gure organismoari ez diote lan makala jartzen, guztia asimilatzea oso zaila baita. Tripakada baten ondoren (saltsa askodun elikagaiak, turroi eta polboroiak, alkohola...) desoreka bat ematen da gure gorputzean eta makurtzean edo oheratzerakoan hain desatsegina den bihotzerrea sentitzen dugu. Azidotasun hau, piroxia bezala ezagutzen da. Normalean urdailean dagoen azidoak goruntz egiten du esofagoraino. Prestatuta ez dagoenez maila azido hau izateko, bihotzerrea nabaritzen dugu. Arreta eta neurria dira kontutan hartzeko bi kontzeptuak, denetik jan daiteke baina kantitate txikian. Azidotasun honi aurre egiteko antiazidoak har daitezke. Jan eta ordu batera edo oheratzerakoan hartu behar dira. Magnesio hidroxido, aluminio hidroxidoa daramaten antiazidoak gomendatzen dituzte espezialistek baita famotidina ere (jariaketa azidoa enhibitzen du era pausatuan). Bikarbonato sodikoa geroz eta gutxiago erabiltzen da.

Soriako botijoa

Zorabiatzen hasia naiz. Dena nire inguruan jiraka eta biraka daukat. Zer gertatzen da. Ni ari ote naiz bueltaka?

Goxo-goxo eta lasai nengoen tokitik ekarri nautenez geroztik hau da atarramendua, busti eta orain hemen nago zortu beharrean, heldu naute eta plasta! hor non bota nauten bueltaka dagoen mahai baten gainean, hemen ez dago gauza onik.

Konturatu naiz norbait ari dela eragiten eta bat-batean esku busti batzuek estutzen naute, hau da estuasuna, zertan ari zarete, ezin dut arnasarik hartu, ito egingo nauzue! Buztin pila bat naizela badakit baina horrek ez dio inori baimenik ematen tratu hau emateko. Zergatik ekarri naute menditik, hain gustura nengoen tokitik?.

Badirudi nire kexak entzun dituela, eta orain suabeago hasi da igurtziak ematen, hau beste gauza bat da, zer gustua, horrela segitzen badu lo hartuko dut, puf!, eskuak berriro busti ditu, hau freskura, ez dago lo hartzerik inola, eta gainera hau da itxura hartzen ari naizena, mundiala, borobila, sudurra ere ipini didate, atzean mototsa ere badut eta orain, zer da hau? diadema dotorea gainean. Hau itxura!. Eskuan duen soka horrekin zer egin behar ote du honek? Ras! Ipurditik ebaki nau eta orain nora narama? Ah, eguzkitara, nahiko ondo nabil, egoera hobetzen ari zait, lehenago goxogoxo igurtzi eta orain epel-epel eguzkia hartzen.

-Kaixo zer moduz hago?

-Zer, nirekin ari haiz? -erantzuten dut aldamenetik norbait ari zaidala konturatzen naizenean.

-Bai, berria haiz, ezta? Begira egon gaituk nola nagusiak forma ematen zian. Guztiak antzeko formarekin ateratzen gaituk, ez diat uste elkarren inbidiarik izango dugunik.

-Esadak, non gaudek?

-Ezta ideiarik ere, ni hire aurretik etorri nauk eta ez diat galdetu. Itxaron pixka bat, hauei galdetuko zieat... Sorian gaudela ziotek.

-Soriar, eta zer duk Soria?

-Ba egia esan behar badiat ez zeukaat arrastorik ere, baka-rrik zekiat mendian ederki nengoela eta handik ekarri nau-



tenez gero, errukirik gabe astindu, nahastu eta busti ondoren, potolo itxura hau eman didatela eta azkenik hi bezala eguzkia hartzen ipini nautela.

-Eta hor dauden kutxa horiek zertarako dituk?

-Nik ere galdera bera egin diat ekarri nautenean eta esan didatenez gu azokara eramateko erabiltzen ditiztek.

-Azoka, azoka, zer duk azoka?

-Ez zekiat, baina diotenez harantz joandakoak ez omen dituk gehiago etortzen. Hi, aizak, berria izateko gehiegi galdetzen duk, erantzunak bukatzen ari zaizkidak!

Ondoan zegoen gure antzeko batek, antzeko esan dut zeren eta zeharo bihurria eta pitzatua baitzegoen, honela zioen:

-Aspaldian hemen nagok eta zuek bezalako botijo asko ikusi dizkiat, harroak eta lerdanak, baina labean sartu eta margotu ondoren hemendik desagertzen dituk betirako, ni nauk beti gelditzen naizena labe barruan istripu bat izan eta elbarria gelditu nintzelako, bazirudik nagusiari grazia egiten diola nire formak.

-Nola deitu gaituk, bo-ti-jo-ak?

Raquel Moreiro

Lan hau 2004ko Sagastiberri Urruzuno

literatura-lehiaketatik hartua da

www.otamotz.com web orrian ipuina osorik

irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Macrea Clarke

Macrea Clarke Irlandako Derry hirian jaio zen. Unibertsitatean Ingeles Literatura ikasketak hasi zituen, baina Ipar Irlandan "gerra egoera" bizi zen eta, "etorkizun beltza" zuela ikusirik, Londonera joan zen bizitzera. Bertan, 1991n Karmele Etxeberria ezagutu zuen eta 1996an Josebe alaba izan zuten. London ez zitzaien umea hezteko toki egokia iruditzen eta Urretxura etorri ziren. Duela 18 hilabete Aisling (ametsa, gaelikoz) jaio zen, bigarren alaba. Irlandar euskalduak Hokaba tabernan lan egiten du eta euskarazko umore ikuskizuna prestatzen ari da.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Manchester taldeko futbol jokalaria. George Best nire heroia zen.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Sormena lantzea gustatzen zait: idaztea, Aislingekin jolastea...

Bizitzeko toki bat?

Amsterdam. Bertako lasaitasuna atsegin dut. Oso zaila da hiri batean hori aurkitzea. Donostia antzekoa da.

Zein duzu gustuko umorista?

Billy Connely eskoziarra. Ingelesez hitz egiten dugunon artean oso ezaguna da. Ezagutzen dudan tiporik barregarriena da.

Zein da gehien gustatzen zaizun euskal ohitura?

San Juan eguna izugarri atsegin dut. Herria Santa Barbaran elkartzen da eta hori zoragarria da. Urtero urduri jartzen naiz.

Ba al dago gorroto duzun euskal ohiturarik?

Tanborrada ez dut batere atsegin.

Irlandako garagardoa ala Euskal Herriko txakolina?

Txakolina, Irlandako garagardoa astunegia baita.

Zein pertsonaia publiko eragiten dizu barregura?

Anjel Acebesek, baina ez beti, kabroi samarra baita.

Nork ez dizu barregura eragiten?

Pocholo Martinez Bordiuk. Ez da harritzekoa, zein familiakoa den kontuan hartzen badugu.

Ilehorriak ala beltzaranak?

Burusoilak. Zurito asko hartu ahal izango nituzke etxeokok ilea-paindegian gastatzen duten diruarekin!

Egindako azken oparia?

Emazteari bi liburu oparitu nizkion bere urtebetetze egunean.



Eta jasotakoa?

Joan zen astean lagunek D-Box dekodifikadorea oparitu zidaten.

Data bat?

1996ko urriaren 30a, Josebe jaio zen eguna. Londonen pasatu nuen egunik zoriontsuena izan zen.

Neska eta mutil izen bana?

Alazne eta Ekai.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Egunkariak ikusita, zuhaitzak alferrik bota dituztela iruditzen zait.

Gustuko telebista saioa?

Sé lo que hicisteis...

Bereziki gorroto duzuna?

Corazón de... Etorri nintzenean jada hor zegoen eta ez dute kendu. Saio horri buruzko gauza on bakarra esan dezaket: berari esker ez zaigu ahazten zein urtarotan bizi garen.

Pelikula bat?

The quiet man, John Ford zuzendariarena.

Liburu bat?

J.R.R. Tolkien idazlearen *El señor de los anillos*.

Soinu bat?

Txalapartarena.

Usain bat?

Marrubiarena.

Janari bat?

Txuletioia, gutxi egina.

Ura ala...

Zuritoa.

ESKOLA PUBLIKOA



*Urteak eman ditu
hainbat berri mota
guk pakeari jarri
nahi diogu nota
klabe horretan urte
berri on bat opa
egin esperantzaren
burbuiletan topa*



J. M. IPARRAGIRRE INSTITUTUA
DBH-BATXILERGOA (A,D)
Erdi Mailako Heziketa Zikloa
"Erizaintzako Zaintza Osagarriak"
Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu



G
GAIZURI
Ikastetxea
URRET XU · ZUMARRAGA

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
Tel.-fax: 943 72 12 14
e-mail: 012284aa@hezkuntza.net
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu

Ni Gipuzkoa naiz.

Guztiok gara Gipuzkoa.

Zurekin egingo dugu Gipuzkoa. Eta Gipuzkoa hobea lortzeko pausoak emango ditugu guztion artean. Plana aurrera egitea da.

2007/2011 Kudeaketa Plana



GIPUZKOA

zurekin, aurrera >>